

# beti berria den zinea

47.

Euskal  
Zine  
Bilera

Lekeitio  
2024  
urriak 16-21



# Aurkez- pena



Lekeitio 2024  
Urriak 16–21

Iaz kontatzen genuen zinea askotariko pausoz egiten den lorratza dela. Eta zinearen bideek eta Lekeitiok etengabe zeharkatu dute elkar. Izan ere, EZBk orain dela ia bost hamarkada hartu baitzuen euskal zinearen bidea marrazten joateko egin ahal zuen ekarpenaren ardura.

Bitarte honetan, harro egoteko erreferentziak lortu ditu EZBk. Euskara hutsez egiten den jaialdirik zaharrena da. Euskaraz egindako zinearentzako topagunea hasieratik eta euskal ikus entzunezkoen erreferentziazko plaza 1978tik.

Ez dezagun ahaztu, proiektu hau lehenengoz ikuskatu zutenak begirada gazte eta biziak izan zirela behin. Gaztetasunetik igarri baitzuten herri honetan zinea euskaraz arnastearen beharra. Eta begirada gaztea eskaini zioten Lekeitiori, euskarari eta euskaraz kontatu beharreko zineari.

Horregatik. 47. edizioan, behinola gazte izandako begirada hauengana bueltatu nahi dugu EZBren norantza. Zine berria egin eta istorio berriak kontatu nahi dizkiguten sortzaile gazteengan pausatu nahi genituzke, aurtan, EZBren begiak. Begirada guztietatik, beti berria den zinea.

[zinebilera.eus](http://zinebilera.eus)



# Agenda

## Urriak 16, Asteazkena

- 12:00 Ikusgarri zine aretoa  
**HARROBIA IKASLE-GOIZA**  
Aurkezpena, proiektzioa eta solasaldia  
EZB eta Euskaltzaleen Topagunea.

## Urriak 17, Osteguna

- 19:00 Ikusgarri zine aretoa  
**LEHIAKETA**  
Sail ofizialeko filmen proiektzioa:  
→ Amets hegalariai <sup>19:50"</sup>  
M.ARRATE FERNANDEZ ITXASO  
→ Ahozko Tradizioa <sup>2:25"</sup>  
ENEKO MURUZABAL ELEZCANO  
→ Agur, Maria <sup>10:31"</sup>  
JONE ARANBERRIA ETXEANDIA  
→ Plazer bat <sup>4:05"</sup>  
SONIA ESTÉVEZ  
→ Larramendi <sup>9"</sup>  
DANIEL NESPEREIRA ROJO  
→ Puztleak, Bortxaketaren Jauregia <sup>15"</sup>  
KOTE CAMACHO DE MIGUEL  
→ Komando Marmitako <sup>11"</sup>  
ANE MIREN NAFARRETE MUÑOZA  
ETA UXUE BOTAS PEÑIN  
→ Phantasia <sup>5"</sup>  
JORGE MONEO QUINTANA

## Urriak 18, Ostirala

- 18:00–20:30  
Kultur etxeko Eskolape aretoa  
**KLIXKA ESPERIMENTAZIO ESPAZIOA**  
Arropaineko Arraguak antolatuta.
- 19:00 Ikusgarri zine aretoa  
**LEHIAKETA**  
Sail ofizialeko filmen proiektzioa:  
→ Oinez <sup>17"</sup>  
JONE ARRIOLA LOBETE  
→ Erro <sup>9:44"</sup>  
AMAIA LEJARRETA ONAINDIA  
→ Urak eginen du bide <sup>30"</sup>  
JUNE AGIRRE ANSA, ALEX ALTUNA  
TOJAL ETA OIER MARKOTEGI  
ZUBILLAGA  
→ Dena Asmatuta Dago <sup>14"</sup>  
JONE ARRIOLA LOBETE  
→ Akatuko haut <sup>47"</sup>  
XABI TOLOSA OTAMENDI  
→ Hor konpon <sup>14:35"</sup>  
JONE ARRIOLA LOBETE
- 21:00 Sociedad Recreativa  
**BERTSO-ZINE GAUA**  
· Gai jartzailea: Ainhoa Urien  
· Bertsolariak: Xabat Gallettebeitia,  
Onintza Enbeita eta Miren Amuriza.  
Sarrera mugatuak, aurretiaz salgai.  
Bertsozale Elkartearekin  
elkarlanean.

## Urriak 19, Larunbata

- 12:00 Ikusgarri zine aretoa  
**LEHIAKETA**  
Sail ofizialeko filmen proiektzioa:  
→ Prosopagnosia <sup>11"</sup>  
EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY  
→ Alas/tierra <sup>11"</sup>  
MADDI BARBER  
→ Ximinoa <sup>25:12"</sup>  
ITZIAR LEEMANS  
→ Utländsk <sup>20"</sup>  
ALBA LOZANO  
→ Hotz <sup>10"</sup>  
LANDER CASTRO  
→ Betiko gaua <sup>17"</sup>  
ENEKO SAGARDOY MUGICA
- 17:00 Kultur etxeko Azuke aretoa  
**ZINEGILEA EZAGUTU**  
Nola eraiki etxe bat? Ekoizle gazteen  
erronka eta lorpenak  
Parte hartzaileak: Ander Barinaga-  
Rementerri eta Sara Blanco  
Dinamizatzailea: Mikele Landa
- 18:00–20:30  
Kultur etxeko Eskolape aretoa  
**KLIXKA ESPERIMENTAZIO ESPAZIOA**  
Arropaineko Arraguak antolatuta.
- 19:30 Ikusgarri zine aretoa  
**47. SARI BANAKETA EKITALDIA ETA EUSKAL ZINEMAREN BEGIRADA**  
Lehiaketako sari banaketa Ana Goitia  
eta Jon Garatek aurkeztuta. Itziar  
Ituñori omenaldia, Ibai Zabalak gidatuta.
- 22:15 Silken Uribarren Hotela  
**DJ SAIOA**

## Urriak 20, Igandea

- 11:00 Kultur etxea  
**ATZO 8 LANTEGIA**  
Ikus-entzunezko ondarea  
ezagutarazten.  
ZINE-LAB ekin elkarlanean.
- 11:30–13:30  
Kultur etxeko Eskolape aretoa  
**KLIXKA ESPERIMENTAZIO ESPAZIOA**  
Arropaineko Arraguak antolatuta.
- 17:30 Ikusgarri zine aretoa  
**PROIEKZIO BEREZIA**  
→ Zortzitik infinitura <sup>61"</sup>  
Dokumentalaren proiektzioa eta  
solasaldia egileen parte hartzearekin.
- 19:00 Ikusgarri zine aretoa  
**ATZO 8 PROIEKZIOA**  
Ikus-entzunezko ondarea ezagutarazten  
ZINE-LAB ekin elkarlanean.

## Urriak 21, Astelehena

- Egun osoan zehar  
**LEHIAKETAKO PALMARESA**  
47. Euskal Zine Bilerako palmarena  
online: [www.zinebilera.eus](http://www.zinebilera.eus)
- 19:00 Kultur etxeko Azuke aretoa  
**PROIEKZIO BEREZIA**  
→ Levante <sup>99"</sup>  
Filmaren proiektzioa eta solasaldia  
Zinegoak jaialdiaren antolatzaileekin.

# Sail Ofiziala

Euskal zinema lehian.

Euskara hutsez egiten den zinema jaialdirik zaharrena da EZB. Orain dela 47 urte Lekeitioko lagun talde batek zinema jaialdi amateur hura martxan jarri zuenetik, lau hamarkadatik gora daramatza euskarazko ikus-entzunezkoentzako topaleku izaten.

Gaur egun, Hazparneko Zinegin jaialdiarekin batera, euskara hutsez egiten diren lanen erakuslelhoa da, eta euskarazko film laburren alorrean lehiaketa bakarra da gurea.

EZBko Lehiaketa, euskaraz ekoiztiko askotariko lanen erakuslelhoa da, teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu zein gai desberdinak biltzen dituen neurrian.

## ► SARIAK

Edizio honetan ondorengo sariak banatuko dira:

Film onenaren saria: 3.000 €

Gidoi onenaren saria: 1.600 €

Benito Ansoa saria: (2000. urtetik aurrera jaiotakoentzat) 1.000 €

Zuzendaritza onenaren saria: 1.600 €

EITB ikuslearen saria: 750 €

## ► EPAIMAHAIA

Sariak erabakitzeaz ondorengo epaimahaia arduratuko da:



Ainara Elgoibar Mungia  
zinegilea eta kultur kudeatzailea



Martxelo Rubio Aurkia  
aktorea



Nerea Ibarzabal Salegi  
bertsolaria eta idazlea

## ► 47. SARI BANAKETA EKITALDIA

Sail ofizialeko sarien banaketa Ana Goitia eta Jon Garatek aurkeztuta.  
Urriak 19 | 19:30 | Ikusgarri zine aretoa

## ► PALMARESA

· Urriak 21 | Egun osoan | zinebilera.eus  
· 47. edizioko palmareseko filmen proiektzioa eta solasaldia parte hartzaileekin, Gentzane Agirrek gidatuta. Azaroak 2 | 19:00 | Bilboko BBK aretoa

# Urriak 17, Osteguna

19:00 Ikusgarri zine aretoa

## Amets fegalariak <sup>19'50"</sup>

M.ARRATE HERNANDEZ ITXASO

Garazi eta Mikel, Maitane eta Unax ezkontuta daude. Elkarren konplizitatea oso jakina izan da, baina ezustekoak ametsetan, bizitzan eta hainbat gertakizun espero ez dituztenak direla tarteko euren bizitza 360 gradu eraldatzea suposatuko diete.



## Ahozko Tradizioa <sup>2'25"</sup>

ENEKO MURUZABAL ELEZCANO

XXI. mendeko euskal baserri txiki batean, emakume gazte batek musika tradizionalaren bidez baserriko lanak egiteko behar dituen ezagutzak jasotzen ditu. Noiz arte iraungo dute jakintza eta ohiturak dituzten kantu horiek belaunaldiz belaunaldi transmitituz?



## Plazer bat <sup>4'05"</sup>

SONIA ESTÉVEZ

Benetan atsegina errazean dago. Plazer iturri diren ekintzen eta egoera arrunten segida da Plazer bat. Zer gutxi behar den ongi sentitzeko!



## Agur, Maria <sup>10'31"</sup>

JONE ARANBERRIA ETXEANDIA

Monjen galletetan marihuana sartzeagatik harrapatu dute Maria. Herriko trafikatzalearekin ihes egiteko prest dagoenean, espero ez duen bigarren aukera bat aurkezten zaio. Fedea eta ustezko askatasunaren artean, komentutik kanpo bere burua ezagutzea aukeratzen du.



## Puzzleak, Bortxaketaren

### Jauregia <sup>15'</sup>

KOTE CAMACHO DE MIGUEL

Anek bere burutik ezabatua zuen unea berreraikitzaera behartuta sentitu da bere gaztetako irudi biluzia birala dela jakitean. Bera grabatu zuen argazkilarri donostiar ezaguna kontaktu boteretsu asko ditu lotuta. Argazkiliariaren kontrako salaketa ate atzean botako dizkiotenean, Aneri kasua publiko egitea besterik ez zaio geratuko.



## Phantasia <sup>5'</sup>

JORGE MONEO QUINTANA

Bilboko Arte Ederren Museoko bi eskulturari X izpiak aplikatzean gure begientzat normalean ikusezinak diren zenbait elementu azaleratzen dira. Jatorriz helburu tekniko edo zientifikoekin sortutako irudi horiek 'fotogenia' moduko bat sortzen dute: objektu erradiografiatuei materialaren eta eteroaren arteko itxura berri bat ematen diete, ezaugarri lurrinsu eta espektral batez dohainduz.

## Larramendi <sup>9'</sup>

DANIEL NESPEREIRA ROJO


Susana bere jaioberriarekin erregistro zibilera doa tramite bat egitera. Tramite sinple bat izan beharko lukeena burokrazia bataila bat bihurtzen da, uste gabeko mugetara eramango duena.



## Komando Marmitako <sup>11'</sup>

ANE MIREN NAFARRETE MUÑOZA  
ETA UXUE BOTAS PEÑIN

Leku eta une egokia aukeratu ezker, marmitakoz betetako poltsa bihurtu daiteke mehatxu terrorista.



# Urriak 18, Ostirala

19:00 Ikusgarri zine aretoa



Oinez <sup>17</sup>

LEIRE EGAÑA

Etxeko parajeetan barrena hiru txango jasotzen dituen dokumental laburra. Bakoitzean, elkarrizketa bat, egi txiki bat errebelatzen duena. Mendia, pausuz pausu, elkarri egiak aitortzea ere badelako. Finean, oinez, mendizaletasun pausatua xendara itzuli nahi du, bidea partekatuz.

Erro <sup>9' 44"</sup>

AMAIA LEJARRETA ONAINDIA

Amaita Lejarreta artista plastiko durangarrak zuzendutako lehen ikus-entzunezko lana da ERRO. lurraldea, espazioa/denbora, memoria, identitatea eta gorputzaren bidezko bizitzaren zikloak bezalako kontzeptuak islatzen ditu. Naturan, amalurran du inspirazio iturri handiena, baita familiak duen esanahia gure bizitzetan. Harentzat artea eta bizitza zatiezinak dira.



Urak eginen du bide <sup>30'</sup>

JUNE AGIRRE ANSA,  
ALEX ALTUNA TOJAL ETA  
OIER MARKOTEGI ZUBILLAGA

Azken hamarkadetan iraultza digitalak hainbat aldaketa ekarri ditu pantailen eta ikus-entzunezkoen kontsumoan. Testuinguru berri honetan, euskarak bizi duen egoeraren berri jaso da zenbait adituren bitartez.



Dena Asmatuta Dago <sup>14'</sup>

JONE ARRIOLA LOBETE

Antzinako eta arrosa estetika duen bainugela. Komunaren erdian bainuontzi bat dago, non bi gazte erlaxatzen diren porro bat erretzen duten bitartean. Elkartzea indarrean jartzen den heinean, elementuen jatorriari eta sorrerari buruzko filosofia egiten hasten dira, elkarrizketa gai pertsonalagoetara jotzen duen arte.

Akatuko haut <sup>47'</sup>

XABI TOLOSA OTAMENDI

Gizon honi pazientzia agortu zaio. Bai bera eta bai bere baserria behin betiko pakean utz ditzaten nahi badu, arnasa sakon hartu eta gauzak argi eta garbi adierazi beharko dizkio aurrean daukanari. Lortuko al du?



Hor konpon <sup>14' 35"</sup>

JONE ARRIOLA LOBETE

Rita eta Berta lapurrak dira. Auto gorri zahar bat bidelagun izanik, inguruko bazterrak nahasten dituzte beraien egunerokotasunean aurkitzen ez duten adrenalina bilatzeko asmoz. Zoritxarrez, gorakada guztiek beherakada bat ere badute. Bertak aldaketa bat behar du eta erabaki bat hartu du.

# Urriak 19, Larunbata

12:00 Ikusgarri zine aretoa

## Prosopagnosia <sup>11'</sup>

EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY  
STURTZE

Prosopagnosia (grezieratik), aurpegiaren itsutasuna ere deitua, gizartearen zati batek pairatzen duen gaixotasuna da, jendearen aurpegiak ezagutzea eragozten diona eta kasurik larrienetan bere aurpegia ere ezagutzeko gai ez dena. Denok al dugu prosopagnosi mailaren bat?



## Alas/tierra <sup>11'</sup>

MADDI BARBER

Pasatzen ari diren arrats bateko argazki batzuk. Igel-liburu bat esku artean. Emakume baten aurpegia, irakurtzen. Basakatu bat esku artean. Egunsentia aurrera doa. Maria Sanchez al baitari eta idazlearen "Esta es la mano que cuida" poematik abiatuta, film hau beste espezieekin dugun harremanaren ikasketa prozesuei buruzko diptiko gisa eraikitzen da.



## Ximinoa <sup>25' 12''</sup>

ITZIAR LEEMANS

Junek, udako lehen lana aurkitu du. Constance zaintzen du, maitasun eskasa duen neskato sentikorra. Laster mantsotzen du haurra eta urte osoan bere haurtzain izateko ilusioa hazten zaio. Haurrari lotzen zaion heinean, klase harremanen bortizkeria eta bere identitatearen ukapena deskubritzen ditu.

## Utländsk <sup>20'</sup>

ALBA LOZANO

Esti Oiartzunera itzuli da sei urtez Suedian bizi ondoren. Bere buruari ez zela itzuliko agindu bazion ere, ezegonkortasun ekonomikoak eta lan-prekariatateak bueltatzera behartzen dute. Herriak aldaezin jarraitzen duela konturatzen da, eta Esti ez dago egokitzeko prest.



## Hotz <sup>10'</sup>

LANDER CASTRO

Bikote bat baso elurtu bat zeharkatzen ari da krimen traumatiko bati lotutako iragan ilun batetik ihes egin nahian, baina zerbait iluna haien zain dago baso horretan izkutatuta, galarazteko prest.



## Betiko gaua <sup>17'</sup>

ENEKO SAGARDOY MUGICA

Mirenek Elena antzemango du alokatutako auto bat gidatzen eta errepidean barrena jarraituko dio.

# Euskal Zine- maren Begirada



## Euskal Zinemaren Begirada omenaldia Itziar Ituño, Ibai Zabalak gidatuta.

Itziar Ituño Martínez (Basauri, 1974) lurralde, zein, hizkuntzaren mugak igaro dituen aktore euskalduna eta euskaltzalea. Interpretazioaren bidez urrutira iritsi da bere ahotsa, Basauriko antzerki eskolatik Zelanda Berriraino eta bueltan. Antipodetan, naiz, munduan Raquel Murillo (La casa de papel, 2017) bezala ezaguna bada ere, euskal herritarrontzat Nekane Beitia (Goenkale, 1994) ertzaina lez ezagunagoa izango da. Igelak (2016) bezala, errodaje batetik bestera jauzika jardun du Loreak (2014) helburu dituela, lorez lore, eta pelikulaz pelikula. Hil Kanpaiak (2020) entzun eta ihesi, Nora (2020) ezak ez du kikildu gure Dragoi Ehiztaria (2012). Nola beldurtuko da ba, Iratí (2022) basoko zaindaria eta jainkosa?

EZBk urtero jartzen du bere begirada euskal ikus-entzunezkoen alorrean ekarpen berezia egin duen eragile edo pertsona batengan. Aurten, munduari euskaraz ekin dion aktore unibertsal honi eman nahi diogu merezi duen aitortza. Ibilbide luze honetan, euskal ikus-entzunezkoetan eta euskarari izan duen eragina aintzakotzat hartu eta bere lanean jarriko dugu Euskal Zinemaren Begirada.

► Eguna: Urriak 19  
Ordua: 19:30  
Espazioa: Ikusgarri zine aretoa



# Bertso- Zine Gaua



Euskal zinea eta bertsolaritza, saio berean. Tartean, zerbait afaltzeko aukera egongo da.

Gai jartzailea: [Ainhoa Urien](#)  
Bertsolariak: [Xabat Gallettebeitia](#)  
[Onintza Enbeita](#)  
[Miren Amuriza](#)



Sarrera mugatua denez,  
aurretiaz erreserbatu behar  
da galdetegi bat betez  
[zinebilera.eus](http://zinebilera.eus) webgunean  
Bertsozale Elkartearekin  
elkarianean.

▶ Eguna: Urriak 18  
Ordua: 21:00  
Sociedad Recreativa  
Sarrera 5 euro

# Zinegilea Ezagutu



Nola eraiki etxe bat?  
Ekoizle gazteen erronka  
eta lorpenak.

Mahai inguru honetan Euskal Herrian jardunean dabiltzan zenbait ekoizle gaztek parte hartuko dute.

Saioaren helburua euskal ekoiztetxe gazteen egoerara hurbiltzea da. Parte hartzaile bakoitzaren esperientziak plazaratu, izan dituzten erronka nagusiak ezagutu eta ikuspegi guztiak uztartuta bertako zinema industriaren erradiografia bat egitea da asmoa. Horrela, bertaratzen direnei, ekoizpengintzaren inguruko nozioak elkarbanatzeaz gain, ekoiztetxe bat martxan jartzeko grina duten horiei informazio baliagarria emango zaie.

Dinamizatzailea:

[Mikele Landa Eiguren](#), zinemagile eta kazetaria

Parte hartzaileak:

[Ander Barinaga-Rementeria](#), GALAPAN ekoiztetxeko kidea

[Sara Blanco](#), Al Borde Films ekoiztetxeko kidea

► Eguna: Urriak 19  
Ordua: 17:00  
Espazioa: Kultur etxeko Azkue aretoa

# Atzo 8



Ikus-entzunezko ondarea ezagutarazten. Lantegia eta proiektzioa ZINE-LABekin elkarlanean.

ATZO 8 egitasmoak ikus-entzunezko ondare analogikoaren inguruan egiten du lan.

Egun osoan zehar "Eskua eta Makina: Kamera estenopeikoa" lantegia egingo da eta 19:00etan eraikitako esperientziak performance formatoan proiektatuko dira.

▶ LANTEGIA

Eguna: Urriak 20

Ordua: 11:00

Espazioa: Kultur etxea

Dohainik, gehienez 15 pertsonako taldea eta zinebilera.eus atarian eman behar da izena.

▶ PROIEKZIOA

Eguna: Urriak 20


Ordua: 19:00

Espazioa: Ikusgarri zine aretoa

Publiko orokorrari zuzenduta eta sarrera librea lekua bete arte.

# KLIXKA

Sorkuntza tailerrak eta  
esperimentazio espazioa.



Arropaineko Arraguaren proiektu hau ikus-entzunezko artxibo baten produkzioaren esparrutik bideratzen da, sorkuntza garaikideko praktiketatik, analogikotik digitalera mugituz, eta alderantziz. Lekeitiarrei zuzendutako programa pedagogiko honen helburu nagusia ikus-entzunezko praktika eta esperientzia zabaltzeko eta elikatzeko asmoa da.

Programa hau bi ekintza-ildotan banatzen da:

## KLIXKA Sorkuntza tailerrak

2024ean zehar tailer praktikoz osatutako topaketak antolatu dira, Azkue Ikastolako DBH ikasleekin eta irakasleekin eta Iturriotz Institutoko Batxillergo 2ko ikasleekin eta irakasleekin elkarlanean. Lea-Artibaiko hainbat eskolekin ere ikus-entzunezko tailerrak garatu dira. Urtero bezala, sorkuntza arloko profesionalak gonbidatu ditugu tailerrak garatzeko. Honako honetan gonbidatuak, Beatriz Sanchez eta Peru Galbete izan dira. Sortutako ikus-entzunezko artxiboak, aplikazio desberdinak diseinatzeko erabiliko dira, lehenik eta behin, urrian gertatuko den klixka [esperimentazio espazioa]n.

## KLIXKA Esperimentazio espazioa

Klixka sorkuntza tailerretan garatu diren ikus-entzunezko artxiboak erabiliz diseinatutako espazio experimental bat da. Zinema hedatua, animazioa experimental, collage filmikoa eta zuzeneko zinema bezalako kontzeptuen inguruan proposatutako espazioa da hau. Publikoari irekita egongo da EZB jaialdiaren egunetan.

- ▶ Espazioa: Kultur etxeko Eskolape aretoa
- Urriak 18, ostirala, 18:00 - 20:30
- Urriak 19, larunbata, 18:00 - 20:30
- Urriak 20, igandea, 11:30 - 13:30

# HARRO- BIA Ikasle- goiza

Aurkezpena, proiektzioa  
eta solasaldia.

Lekeitioko gazteak Euskal Zine Bileraren belaunaldi berria izateko nahitik, jaialdia bera eta ikus-entzunezkoen jarduera hauengana hurbiltzeko proiektua da HARROBIA.

Jaialdia erreferente izateko eta hau lanketa pedagogikoarekin batera egiteko, ikastetxeetako kurrikulumentara egokitutako oinarrizko konpetentzietara moldatuko da egitasmo hau, adinaren, momentuko beharren eta testuinguruaren arabera. Gazteekiko eta hauen interesekiko gertutasuna, eskaintzaren erakargarritasuna eta gaur egun gure gizartean ikus-entzunezkoek duten garrantzia hartu dira elementu nagusi gisa proposamena egiterako momentuan.

Lekeitioko gazteak (14-16 urte) ikus-entzunezkoetan heztea, hau da, soinu eta irudiak barne biltzen duen edozein disziplinetan: zinea, bideogintza, bideo-edizioa, etab. Bestela esanda, Lekeitioko Zine Bileraren etorkizuneko belaunaldian grina hori piztea alegia.

Euskal Zine Bilera eta Euskaltzaleen Topagunea.

► IKASLE-GOIZA  
Eguna: Urriak 16  
Ordua: 12:00  
Espazioa: Ikusgarri zine aretoa

# Proiektzio Bereziak



Proiektzioa eta solasaldia  
egileen parte hartzearekin.

## ZORTZITIK INFINITURA <sup>61'</sup>

Benito Ansola zinemagilearen bizitza ibilbide hartuta eta Miren Agur Meabe idazlea bidelagun ditugula, euskal zinemagintzaren historian barrena bidaiatuko dugu, bai euskal zinema eta bai euskarazko zinema erein zirenetik gaur egun bizi duten loraldiraino. Miren Agur Meabe ez da bakarrik izango ordea. Bidaia honetan, luxuzko laguntzaileak izango ditugu. Euskal zinemagintzaren bilakaeraren lekuko eta protagonista izan diren hainbat zinemagile euskaldun arrakastatsu izango ditugu kontalari.

Solasaldia:

[Naia Laka](#) (zuzendaria eta gidolaria), [Miren Agur Meabe](#) (aurkezlea eta idazlea) eta [Xabier Villalba](#) (ekoizpen zuzendaria) eta [Benito Ansola](#) (apaiza eta Euskal Zine Bileraren sortzaileetako bat).

- ▶ Eguna: Urriak 20
- Ordua: 17:30
- Espazioa: Ikusgarri zine aretoa

## LEVANTE <sup>99'</sup>

Sofiak bere etorkizuna definituko duen boleibol-txapelketa baten bezperan jakingo du haurdun dagoela, berak hala nahi gabe. Haurdunaldia ilegalki eteten saiatuko da, eta, azkenean, talde fundamentalista baten jomuga bihurtuko da. Sofia atxilotzen saiatuko dira, baina ez berak ez bera maite dutenek ez dute amore emango abere-saldoaren sukarraren aurrean.

Solasaldia:

[Alaitz Arenzana](#) eta [Maren Zubeldia](#) (Zinegoak jaialdia) + [Andretxeko kideak](#).

- ▶ Eguna: Urriak 21
- Ordua: 19:00
- Espazioa: Kultur etxeko Azkue aretoa

# Eskerrik asko!

Lekeitioko Euskal Zine Bilerak 47 edizio beteko ditu aurten, eta ibilbide hau egitea hainbat bidelaguni esker izan da posible. Horregatik, aurtengo familiaren parte izan direnak eskertu nahi ditu jaialdiaren antolakuntzak.

Ezin ahaztu, Euskal Zine Bilera antolatzea posible egiten duten babesleak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Eitb eta Eusko Label. Eta, nola ez, Ikusgarri aretoa beteko duzuen zinezale, zinegile, eta euskaltzaleei. Duela 47 urte EZBren hazia jarri zutenei, urtez urte bidean batu direnei eta urtez urte alboan egoten jarraituko duten guztiei.

# 47.

# EUSKAL ZINE BILERA



LEKEITIO  
geure  
nortasunetik

BABESLEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN BERTSULTZA  
POLITIKA BARRA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior



CARTONAJES  
**ERABIL, S. A.**  
KARTOI KUTXAK

**eitb**

ELKARLANAK

  
euskaltzateen  
topagunea

• 104.478.000 BERTSULTZA BERTSULTZARI •  
**HITZA**



EUSKADIKO  
FILMITEGIA  
FILMOTECA  
VASCA

**ZINE  
GO  
AK**

  
euskal herriko  
bertsozale  
elkartea

**ARRAGUA  
ARPAINEKO**




**bbk** 



**TRAOLA**  
PRODUCCIONES

**kinleuko**

**zine—lab**





**47.** EUSKAL  
ZINE  
BILERA



LEKEITIO  
geure  
nortasunetik

[zinebilera.eus](http://zinebilera.eus)

